



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

3. unitatea: HERRITARRAK PROTAGONISTA

Sarrera

Aurreko unitateetan gure herriaren historian atzera egin genuen, nortzuk garen eta nondik gatozen ikusteko. Proiektuko azken ale honetan, ordea, gaur egungo herrian oinarrituko gara, herritarrengan eta erakundeetan; alde batetik, ezagutza lantzeko eta, bestetik, partaidetza bultzatzeko. Urruneko eta hurbileko Historia ezagutu dugun arren, oraingoan argi geratuko da gu geroni garelako historiagileak.

Esan bezala, gaur egungo haurrek giza paisaia zabala dute inguruan eta horren zergatiak, arrazoiak eta zenbakiak aztertuko ditugu. Asmo horrekin sortu ditugu Zaina marokoarra eta Gotzon bizkaitarraren pertsonaiak. Kattalin ere agertuko da, noski, eta haren senideak, baina hasieratik ezagutu dugun neskatila koxkortuago agertuko zaigu oraingoan, helduxeago eta parte hartzaileago.

Protagonistei buruz ari garelako, herrian gailentzen diren elkarte eta pertsonen berri ere emango dugu. Eta, nolabait ere, horiek bildu eta egituratzen dituen erakunde nagusia nabarmendu, hau da, Udala, hortxe gauzatzen baita herritarron partaidetza, hortxe erabakitzen.

Unitate honen erabilerari dagokionez, ikasleentzako dinamikoa eta irakasleentzako malgua izan nahi du. Horregatik, irakasleei zuzendutako gidan proposamen ugari egiten dira, unitatean jasotzen direnekin osagarri edota alternatibo izan daitezkeenak. Horien lanketa laguntzeko, informazio osagarria eskaintzen da webgunean; baita jarduerak modu interaktiboan lantzeko tresnak ere. Gainera, eskolatik kanpo atera eta haurrek beraien ingurua behatu eta ikertu dezaten bultzatu nahi da; parte-hartze soziala garatzea; informazioa bildu, ordenatu eta komunikatzea...



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

Unitatearen helburu nagusiak:

- X Ikasleek gaur egungo Ordizia ezagutzea: herria bera, herritarrak eta erakundeak.
- X Ikasleei herriko partaide direla sentiaraztea.
- X Belaunaldien arteko transmisioa bultzatzea.
- X Kultura desberdinetako jendea eta ohiturak ezagutaraztea eta hauekin errespetuz jokatzeko ikastea.
- X Portzentaiak ehunekotan kalkulatzeko.
- X Tauletako informazioa interpretatzeko ikastea.
- X Herriko zenbait elkarte, kultura talde eta kirol talde beren izenez ezagutzea eta identifikatzea.
- X Herriarekin zerikusia duten abestiak ezagutzea eta ikastea, besteak beste, Ordiziako historia laburbiltzen duen martxa eta urte bukaeran abesten den Kattalin
- X Informazioa lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio iturri desberdinetara jotzea: komunikazio-teknologiak, herriko jendea, testu idatziak, grabazioak...
- X Iturri desberdinetatik jasotako informazio hori modu egokian antolatu eta, ahoz nahiz idatziz, era ulergarrian adierazteko gai izatea.
- X Mota desberdinetako testu idatzien egituraren eta ezaugarrietan erraparatzea ondoren, modu egokian idatzi ahal izateko: albistea, poema, dekalogoak...
- X Euskalkia ezagutzea eta honen adierazpide nagusiak erabiltzen trebatzea; hiztegia, esaerak, espresioak ...

Unitateko jardueren azalpena

Lehenaldia historia da, eta misterioa etorkizuna, baina orainaldia oparia da.

Ikasleei esaera honen esanahia zein ote den galdetuko diegu. Esaldiarekin batera azaltzen den irudiaren inguruan ere hitz egiten jarriko ditugu: zer egiten ari den Kattalin, xaboi-burbuila batzuk zergatik dauden ilunxeago eta beste batzuk argixeago, zergatik dagoen galdera ikurra batean edo bestean.... (Liburuxkako 1. orrialdea)



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

KATTALIN LAGUN BERRIEKIN

AGURRA: *Zemuz, labas, zelan?*

Hirugarren unitate honetako protagonista, aurreko bietan bezalaxe, Kattalin izango da. Neska motza oraingoan hazixeago ikusiko dugu, nerabetxo itxura hartu baitu. Lagun berriak izango ditu alboan: Zaina marokoarra eta Gotzon bizkaitarra. Hirurek beraien hizkuntzan edo euskalkian agurtuko gaituzte.

Zaina eta Gotzon etorri berriak dira Ordiziara eta ez dute herria ezagutzen; Kattalinekin laguntza eskatu digu.

JARDUERA:

Lagunduko al didazue Zainari eta Gotzoni herria erakusten? Zer esan, ordea, Ordiziari buruz? Izan ere, hainbeste dago esateko! Labur-labur, hamar esaldi telegrafikoren bitartez, zer esango genieke gure herriaz?

Liburuxkako 2. eta 3. orrialdeak

IPUINA

Hiru eguneko asteburua

Andereñoak Xabier Urzanteren ipuina irakurri die ikasleei. Ipuin honetan erlijio eta kultura bakoitzak bere-bereak dituen ohiturak eta ospakizunak dituela nabarmendu nahi da; ez hobeak, ez okerragoak, bereziak baizik. Ikasleak gai honen inguruan hitz egiten jarriko ditugu.

Ziur ikasgelan bertan edo aldameneko gelaren batean beste herrialderen bateko ikasleren bat egongo dela bere jatorriko herrialdeari buruz kontu asko kontatzeko prest dagoena. Goazen bada, zirikatzerara eta galdetzerara.



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

JARDUERA:

Ipuinean argi geratu da bai jai egunak, bai ospakizunak han-hemenka desberdinak izan daitezkeela.

Tokia eta erlijioa zein diren. Gelakide edo eskolakideen artean ba al duzue desberdintasunik?

Nolakoak dira?

Liburuxkako 4. eta 5. orrialdeak

PROIEKTUA

Nolako herria nahiko zenuke?

Gure herrian, ordea, herri guztietan bezalaxe badago zer hobetua. Udalak, bere aldetik, herritarren beharrak asetzeko ahalegina egiten badu ere, zenbaitetan herritarren iritzia ezagutu nahi izaten du. Horixe eskatuko diegu ikasleei; hau da, herria hobetzeko proiektua gauzatzea. Horretarako galdera hau egin diezaiekegu:

Gustatuko al litzaizueke gure herriaren alde zerbait egitea?

Proiektua gauzatzeko zenbait urrats emango ditugu:

Hasteko, "Ideia jasa" antolatuko dugu ikasleek amesten duten edo nahiko luketen herria irudikatzeke. Teknika hau irudimen sortzailea garatzera eta lantzerantz zuzendurik dago. Horretarako 10 bat minutu emango dizkiegu eta taldekideek gai horri buruzko ahalik eta ideia gehien emango dituzte. Taldea oso handia bada, talde txikitari banatuko da. Idazkariak ideia guztiak jasoko ditu eta taldekideek ez dute haiei buruzko kritikarik egingo. Taldekide guztiek beren ideiak aurkezten dituztenean hurrengo fasea hasiko da.

Osatu dugun mapa mentala erabiliz, proposamenak aztertzen joango gara eta egingarriak diren aukerak hautatzen.

Egingarriak diren horietatik hautaketa bat egingo dugu eta zer egingo dugun erabakiko dugu (gauza bakar bat izan daiteke edo, oso errazak badira, bat baino gehiago).

Behin erabakia hartu eta gero, egin beharreko guztia planifikatzen hasiko gara eta planifikatutakoaren arabera, proposamena(k) gauzatzen hasiko gara.



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

Eta, bukatzeko, egindakoaren komunikazioa egingo dugu. Proiektu honen web orria erabiliz, ikastetxe bakoitzaren web orria edo blogak erabiliz, prentsaurreko bat eskainiz, beste mailetako geletara joanez, txosten bat argitaratuz... (aukera ugari dago, baina dena ezin denez, aukeraketa egin beharko da)..

JARDUERA: Gure herria sakon ezagutzen ari gara eta bertan bizitzearen esperientzia dugu. Eman dezagun Udalak umeei begira herrian zenbait aldaketa egin nahi dituela, baina horretarako zuei iritzia eskatu dizuela, zuen proposamenak ezagutu nahi di-tuela. Saiatuko al gara gure burutazioak eta ideiak proiektu batean ordenatzen? Nork jakin, beharbada proiektu onenak saria jasoko du...

Liburuxkako 5. orrialdea

UDALA

Zeregina eta egitura

Atal honen helburua gure ikasleek Udala gertutik ezagutzea da; izan ere ez da erraza herri bat eraikitzea, eta are gutxiago herri horren bizimodua antolatzea eta arautzea. Horren ardura Udaletik hasten da, hain zuzen ere herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetik.

Herritarrek aukeratua, Udalak herritar gehienek iritzia aintzat hartu beharra dauka, eta lan egin haien kezkek eta beharrak gauzatu daitezten.

*JARDUERA: **Bilatu:** Udalaren lanak asko eta askotarikoak dira, eta horiek bideratzeko sail eta zerbitzu ugari behar dira. Ba al dakizu Ordiziako Udalekoak zein diren?*

Informazioa Ordiziako udaleko webgunean duzu: www.ordizia.org

Liburuxkako 6. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

Udaleko webgunea ezagutu

Gure ikasleek Ordiziako Udaleko webgunea ezagutzea izango da ondorengo jardueren helburua: bertan zein informazio interesgarri dagoen ikusi, Udalaren antolamendua zein den aztertu, sail desberdinekin harremanetan jartzeko bideak zeintzuk diren jakin, eta abarren abarra.

JARDUERAK: Ikusi duzun bezala, Ordiziako Udaleko webgunean informazio interesgarri gehiago ere badago. Zer nabarmenduko zenuke?

Liburuxkako 6. orrialdea

JARDUERAK: Udalaren lanak asko eta askotarikoak dira, eta horiek bideratzeko sail eta zerbitzu ugari behar dira. Ba al dakizu Ordiziako Udalekoak zein diren?

Liburuxkako 6. orrialdea

HERRIKO ALKATEA BANINTZ...

Oso herrri gutxi izango dira, umeek egun batez alkate eta alkatesa izateko aukera dutenak, Ordizia dugu horietako bat.

JARDUERA: Honezkero jakingo duzu, Ordiziako hurrek ere alkate-alkatesa, agoazila... izateko aukera dutela urtean bi egunez. Noiz ordea? Ba al dakizu zeintzuk diren beraien egitekoak? Nola janzten diren? Amona Agedak dioen bezala, 'Ez baldin badakizu, galdera da egia jakiteko era!'. Laburtu hemen.

Liburuxkako 7. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

KOMIKIA

Aitona-amonei bisita

Bizimodu zurrunbilotsu honetan, egunean egunekoarekin bizitzeko arriskua dugu, nondik gatozen, gure tradizioak eta usadioak ezagutu gabe. Trasmisioak gure adinekoekiko interesa erakusten du, komunikazioa esan nahi du.

Euskalkia lantzeko ere aproposa da irakurgai hau.

JARDUERAK: Kontu-kontari. Zuk zeuk ere ziur izango duzula inguruan norbait istorio politak kontatzen dituen; aitona, amona, izeba, osaba edo bizilaguna... Esaiozu zerbait kontatzeko gero zuk gelan zure ikaskideei azaltzeko. Edo animatzen bazara, gelara bertara etortzeko esaiozu.

Liburuxkako 8., 9. eta 10. orrialdeak

Kultura desberdinetako ohiturak eta janariak ezagutzea ere bada komiki honen beste helburuetako bat.

JARDUERA: Izan gelakideei galdetuta, izan libururen batean begiratuta, ikasi, idatzi, eta kontatuko al duzue munduko beste bazterren bateko ipuinen bat?

Eta sukaldaritzako errezetaren bat?

Liburuxkako 8., 9. eta 10. orrialdeak



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

MILA KOLORE

Kultura aniztasuna

Historian zehar, euskaldunok kanpora atera behar izan dugu lan bila: ordziarrak ibili izan dira makailautan, esku pilotan, artzain..., Hego Amerikan gehienbat. Ekonomiaren hazkundeak, gero, kontrako eragina izan zuen eta hainbat jende etorri izan da eta dator gurera. Askok arazo ikusten duen honetan, aukera nabarmendu nahi genuke guk: elkar ezagutzeko, aberasteko, hobeto bizitzeko.

Azken hamarkadan Ordiziako populazioan etorkinen presentzia izugarri handitu da; horretaz jabetzeko, aldameneko taula ikusi besterik ez dago. Horri arretaz erreparatuta, ikasleek urtetik urtera etorkinen kopuruak nola egin duen gora aztertu beharko dute, eta horren inguruko hausnarketa egin. Horren ondoren, esku artean dituzten datuekin Hitza-n argitaratzeko moduko albistea prestatzeko eskatuko diegu.

Ariketa hau egin aurretik antzeko albisteen ereduak lantzea komeniko litzateke.

Etorkinen kopurua ehunekotan ematen ere trebatuko ditugu. 2003-2007 bitartekoak taulan bertan dituzte, ez ordea, 2008-2012 urte bitartekoak. Horiexek kalkulatu beharko dituzte.

JARDUERA: Zenbat gara?

Taulako datuak aztertuta, zer nabarmenduko zenuke populazio ordziarraren azken urteotako bilakaeran? Nolako iruditzen zaizu etorkinen presentzia?

Liburuxkako 12. orrialdea

JARDUERA: Albistea idatzi

Imajinatu datu hauekin, egunkari bateko albistea osatu behar duzula: nola azalduko zenuke?

Liburuxkako 12. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

JARDUERA: Osatu

Goiko taulako datuak baliatuz, osatu ezazu ondoko grafikoa.

Liburuxkako 12. orrialdea

Beste taula honi begira, ikasleek zein herrialdetatik etorkin gehien eta zeinetatik gutxien etorri den aztertu beharko dute. Behin hori aztertu eta gero, herrialde horiek kontinenteetan kokatzen saiatuko dira; horretarako munduko mapa erabiltzea gomendagarria litzateke.

JARDUERA: Aztertu. *Nondik etorri ote da, ordea, jendea? Goazen aztertzeraz. Hona hemen 2011ko datuak.*

Zein kontinentetatik etorri da gehiengoa?

Liburuxkako 13. orrialdea

JARDUERA: *Atzerritar jatorria kontuan hartuta, ipini lau kiurietan kontinente bakoitzari dagokion kopurua.*

Liburuxkako 13. orrialdea

Azken lana, gelako ikaskide guztien jatorriaren inguruko datu bilketa egitean eta emaitzak aztertzean datza. Azterketa hau interesgarriagoa izateko hiru belaunaldi azter ditzakegu.

JARDUERA: *Antzeko bilketa egin dezkezu zeure etxean. Hiru belaunaldi azter ditzakezu.*

Liburuxkako 13. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

PROPOSAMENA

Kulturtasuna lantzeko libururen bat edo beste irakurtzeko aukera polita. Adibidez: Patxi Zubizarretaren;

- X Usoa, hegan etorritako neskatoa (Erein)*
- X Arroza eta tinta (Erein)*
- X Gutun harrigarri bat (Elkar)*

Harkaitz Canoren Omar dendaria (Elkar)

Bide batez, hurrei ere galdetu diezaiekegu ea halako liburu, kantu edo film gehia-go ezagutzen duten

GURE HERRIKO ZENBAIT PERTSONA

Pertsonak egiten dute herria. Pertsonak ematen diote izaera eta kutsua. Batzuk ezagunak dira, ospetsuak ere bai bakarren bat; beste batzuk oharkabean geratzen dira, baina isilean ere gauza eder askoak egin daitezke. Edozein modutan, biak ala biak dira beharrezkoak. Gainera, bizitzan zehar boladak egon daitezke.

Asko eta asko izan dira eta dira, gaur egun ere, gure herrian modu batera edo bes-tera ezagun egin diren pertsonak. Gure ikasleek horien berri izatea da segidako jardueren helburua.

Nor diren eta zer diren

Jarraian, Ordiziatik nabarmendu diren hamar pertsonaren azalpen testutxoak irakurriko dituzte ikasleek. Alboan pertsona horien argazkiak egongo dira eta ikasleek argazki bakoitzari zein testu dagokion asmatu beharko dute.



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

JARDUERA: Ordiziako historian makina bat pertsona nabarmendu ditzakegu. Hona hemen batzuk-batzuk: gai izango al zinateke argakia eta deskribapen laburra zuzen lotzeko?

Liburuxkako 14. eta 15. orrialdeak

Mikel Garmendia Kutturru

Oraingoan ikasleek Mikel Garmendia Kutturru ezagutzeko aukera izango dute; horretarako, berari buruzko testua irakurri eta entzun ondoren testuari buruzko lanketa egin beharko dute.

JARDUERA:

- *Zein lanetan aritu izan zen Mikel Garmendia ordiziarra?*
- *Azpiarratu itzazu Kutturruren izaera eta itxurararekin zerikusia duten izenondoak.*
- *Gizon edo emakume, bururatzen al zaizu gaur egungo antzeko aktoreren bat?*

Liburuxkako 16. orrialdea

PROPOSAMENA

Webguneko jolasen atalean pertsonaia gehiago dituzue identifikatzeko.



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

KULTURA AZTERTZEN

Herri baten kultura modu askotara agertzen da: musikan, artean, literaturan, dantzan, kirolean, festak egiteko moduan... Batzuetan bakarka, bestetuetan taldeka, kultura herri baten bizitasunaren termometroa da.

OSPAKIZUNAK

Zalantzarik gabe, gure herrian kultur adierazpide asko dago eta asko dira urtean zehar egiten diren ospakizunak. Horiek ezagutzea eta besteei ezagutaraztea izango da ondoko jardueren helburua.

Ordiziarrek ospakizunetan parte hartzen

Argazkiei begiratuta, ordiziarrek bertan zer ospatzen ari diren asmatu beharko dute.

JARDUERA:

Argazki bakoitzaren arabera, azalduko al diezu Zaina eta Gotzoni ordiziarrek zer ospatzen ari diren?

SOLUZIOAK:

- X San Juan bezperako akelarrea*
- X Erdi Aroko azoka*
- X Artzain eguna*
- X Santa Agenda*
- X Gabonak*
- X Kaldereroak*
- X San Pedro bezperako erromeria*
- X Euskal jaiak*
- X Santa Ana jaiak*

Liburuxkako 17. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

JARDUERA: Hizki-Mizkia

Osatu zutabe edo lerro bakoitza. Ordiziako ospakizun bakoitza dagokion tokian idatziz.

Liburuxkako 18. orrialdea

PROPOSAMENA (Webguneko jolasen atalean)

Ospakizun gehiagoren argazkiak aurrean dituztela lau zakutan sartu beharko dituzte: Santa Ana jaiak, Euskal jaiak, Gabonak, bestelakoak.

Turismo bulegorako eskaera

Ordiziako turismo bulegorako, ikasleei proiektutxo bat egin behar dutela adieraziko diegu. Asmoa edo helburua, Ordiziara kanpotik bisitan etortzen den jendeari begira, herrian urtean zehar aurrera eramaten diren kultura jarduerekin triptiko bat egitea da. Bertan, oso modu laburrean eta erakargarrian, ospakizunaren izena, bertan egin edo ikus daitekeena eta hau ospatzen den urte garaia azaldu beharko dute. Honi zein forma eman ikasleen esku geratuko da: argazkiak, irudiak, graffitiak...

JARDUERA: Osatu

Egin kontu turismo bulegotik eskaera hau egin dizuetela:

—Ordiziara makina bat jende inguratzen da herria bisitatzera eta informazioa eskatzera. Lagunduko al diguzue taula hau osatzen? Egingo al duzue marrazki, horma irudi edo graffittiren bat bertan zintzilikatzeko eta bulegoa apaintzeko? Argazkiak behar izanez gero, Ordiziako udaleko webgunera jo: www.ordizia.org

Liburuxkako 19. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

Sustrai handiko ohiturak eta usadioak

Ordiziako danborrada

Asko dira Ordiziako historian ondo sustraitutako ohitura eta usadioak: azokak 500 urte beteak ditu (1512an sortu zen), euskal jaiek 2004an mende bat lehenago izan zuten jatorria, eta danborrada entzutetsuaren mendeurrena ere 2013an ospatu zen... Uztailaren 24ko gauaz ari garela, Gurrutxaga maisuak 1947an sortu zuen martxa, eta mendeurrenaren aitzakiarekin Patxi Zubizarretaren esku geratu zen haren letra egokitzea. Beharbada, gure lan honen laburpen moduko bat topatuko dugu idazle ordiziarraren bertsoetan.

Gogoan izan, gainera, martxaren presentzia nabarmena dela bai nagusien bai haurren danborradan. Horrekin lotuta, aukera polita izan daiteke bietan ere emakumeak eta gizonak direla partaideak.

JARDUERA: Osatu

Ordiziako martxaren letra arretaz irakurri —kantatu ere bai!— eta gero, azpimarratu bertan agertzen diren izenak: herriarenak, santuenak, pertsonaienak, ibaiarena... Ariketa hau hiru unitateen birpasa modukoa izan daiteke.

Taldeka, ausartuko al zinatekete azoka, euskal jaiak eta danborrada aipatzen diren bertsoak zuen erara moldatzera?

Liburuxkako 20. eta 21. orrialdeak

Umeak protagonista

Ordiziako jaiek ohitura edo usadio bakanak eta propioak dituzte. Horietako bat, 1964an sortu zen haur danborrada da, urte askoan haur katekesiakoei antolatua. 1974az geroztik, Santa Anaren omenezko jaien aurreko asteburuan, haurrei jai giro eta egitarau bikaina eskaini izan zaie. Hala ere, lehenago ere uztailaren 28an ospakizun bereziak antolatzen ziren, esate baterako, haur jolasak eta aurrekua.

Ondorengo jardueraren asmoa umei begira herrian antolatzen diren ekintzak gure ikasleei



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

ezagutaraztea da; izan ere, hauek askotan parte hartzen badute ere, ziur aski ez dituzte guztiak ezagutuko.

JARDUERA:

Urtean zehar ere ekintza ugari antolatzen dira umeentzat bai Udalak antolatuta, bai eskola-ikastolak antolatuta. Bururatzen al zaizu bat edo beste? Zuk parte hartzen al duzu bakarren batean?

Liburuxkako 22. orrialdea

Umeentzako kultura agenda

Udalak umeak ere beraiei eskainitako kultura agenda osatzekorakoan parte hartzaile zuzenak izatea nahi du, beraien nahiak eta proposamenak kontuan hartzeko.

JARDUERA: Zure txanda

Egin kontu udaletxeko kultura sailak haurrentzako kultura agenda beritu eta zabaldu nahi duela. Datorren urtetik aurrera gauzatuko diren ospakizun eta ekitaldi horietarako, ordea, zuen laguntza behar dute. Zer egingo zenukete gustura? Zein urte sasoitant? Bururatzen al zaizue gerora ere gogoratzea nahi zenuketen ospakizunen bat? Jarri taldeka eta ekin lanari.

Liburuxkako 22. orrialdea

KIROLA

Ordizia, betidanik kirol tradizio handiko herria izan da. Denon gogoan dago Santiago egunean ospatzen den Klasika —garai batean, Urte Berriarekin ziklo kros proba egiten zen Altamiran: etxeetan baietz zaleturen batek gogoratu!—, baina urtean zehar errugbia nagusitu zaigu azken urteotan —horretaz ere makina bat oroitzapen egongo da gure etxeetan...

Baina kirolaren inguruan askoz ere elkarte gehiago sortu izan dira gurean: esku pilota, futbola, boxeoa...



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

Kirola egitearen onurak

Ez dira gutxi kirola egiteak dituen onurak eta horregatik, gure ikasleak horien guztien jakitun izatea nahiko genuke.

Talde txikitan lehenengo eta talde handian ondoren, kirola egitearen alde on guztiakin, jendea kirola egitera animatzeko dekalogo bat egiteko eskatuko diegu ikasleei. Dekalogo hori esaldiz eta irudiz osatuta dagoenean, herriko zenbait tokitan jar daiteke: ikastetxean, kiroldegian, Barrenan...

JARDUERA:

Jende askok egiten du gaur egun kirolaren bat; dena dela, batzuk-batzuk geldi egonean nahiago... Nola animatuko zenukete jendea kirola egitera? Zein onura dakar, zergatik gomendatuko zenukete?

Liburuxkako 23. orrialdea

Non egin daiteke kirola?

Ordiziarrok kirola leku batean baino gehiagotan egin daitekeela badakigu: Majori kiroldegian, Beti Alai pilotalekuan, Altamirako kirol estadioan, kalean... Baina Ordizakoak ez direnek, edo Zainak eta Gotzonek bezala, Ordizian denbora gutxi bizitzen daramatenek ba ote dakite? Ikasleak kirol bakoitza zein tokitan egiten den pentsatzen jarriko ditugu. Jarduera honek toponimia lantzea du helburu eta beraz, toki bakoitza bere izenarekin jartzeko eskatuko diegu.

JARDUERA:

Kirola egitearen onura horiek guztiak jakinda Zaina eta Gotzon animatu egin dira eta kirolen bat egiteko gogoaz azaldu dute. Ez dakite, ordea, Ordizian zer aukera duten edo nora joan behar duten galdetzera. Lagunduko al diegu? Kirola non egiten da?

Liburuxkako 23. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

ELKARTEAK

Herritarren lana lau urtean behin botoa ematea eta agintariak aukeratzea baino askoz gehiago da. Helburuak eta planak paperetik atera, eta praktikara eraman behar dira, eguneroko bizimodura. Horretarako, oso garrantzitsua da gutako bakoitzaren —boluntarioen— eta elkarten ahalegina: izan etorkinen, izan gaixoen, izan euskararen alde egiteko...

Musutruk egiten den lana

Gizarteko arlo guztietan orokorrean elkarren arteko laguntza zein garrantzitsua den adieraziko diegu ikasleei; izan ere, boluntarioek eta elkarteek egiten duten lana askotan isila bada ere, oso beharrezkoa da herritar sentimenduaren bultzatzailea delako.

JARDUERA:

- *Auzolana zer den ba al dakizu? Gelako inork ez baldin badu ezagutzen, galdetu inguruan eta pentsatu ea elkarten lanaren antzekoa den.*
- *Eta boluntarioa izatea zer den? Zure ustez, zergatik hasten da pertsona bat musu truk besteen aldeko lanean? Ezagutzen al duzu zure inguruan boluntarioen bat?*
- *Gaur egungo gizartean, zer iruditzen zaizu boluntarioen jarrera?*

Liburuxkako 24. orrialdea

Herriko zenbait elkarteren izenak eta bakoitzaren zeregina zein den ezagutzeko aukera izango dute gure ikasleek. Elkarte horietakoren bat edo beste ere bisita daiteke edo bestela, bertako kideren bat gonbidatu elkartearen berri emateko.



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

JARDUERA: Pareak lotu

Hemen dauzkazu gizarte esparru orokor batzuk eta aldamenean elkarte zehatzak: asmatuko al zenuke loturak behar bezala egiten?

SOLUZIOAK:

- X Ordizian Merkatari elkarte
- X Txapagain Kirol elkarte
- X Bategin Etorkinen elkarte
- X Ortzadar Kultur elkarte
- X Hitzaro Euskara elkarte
- X Kimetz Emakume elkarte

Liburuxkako 24. orrialdea

JARDUERA: Sortu

Elkarte horietakoren bat aukeratu, eta egiozu bere helburu eta lan arloa laburbilduko eta azalduko duen logo edo marrazki bat; pentsa ezazu elkartearen atarian jartzeko balio dezakeela.

Liburuxkako 25. orrialdea



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

Kultur taldeak

Gure herrian makina bat kirol talde dauden bezalaxe, kultur talde ugari daudela esan dezakegu. Horietako bakoitzak bere izena du eta horien berri eman nahi zaie ikasleei.

JARDUERA: *Argitu*

Zainak eta Gotzonek, handik edo hemendik, denbora gutxian kultur talde askoren izenak entzun dituzte eta erabat nahastuta daude. Lagunduko al diegu puzzlea osatzen?

SOLUZIOAK:

- X Beti Argi musika banda*
- X Laguntasuna errondaila*
- X Oroith abesbatza*
- X Burrunbazale txaranga*
- X Santa Ana abesbatza*
- X Urrup antzerki taldea*
- X Amets bide dantza taldea*
- X Urdaneta dantza taldea*
- X Goierriko bertsolari eskola*
- X Ordiziako musika eskola*

Liburuxkako 25. orrialdea

ESKOLA

Kattalinek ikasgelarako lau jai eguneko asteburua proposatu zuenean, andereñoak, Lazkao Txiki bertsolariaren ateraldi haien antzera, erantzun zion: 'Ez: onena, ikas-ketak jai bihurtzea!'. Edozein modutan, argi dago hezkuntza gizartearen motor garrantzitsuenetakoa dela, eskola-ikastolak ezinbestekoak direla gizarteak aurrera egin dezan.

Geure etxekoei galdetzen hasiz gero, seguru asko esango digute eskola publikoa Dorrean gogoratzen



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

dutela, herri-herrian; Karmelitak ere gogoratzen dituztela, Plazuela aldean, neskentzako ikastetxea, eta, mutilentzat, La Salle ikastetxea Santa Ana aldean. Gero beste moja batzuk ere etorri zirela, Karidadekoak, orain aitona-amonen egoitza dagoen aldean. Eta baziren klase partikularrak ematen zituztenak ere, Antonio eta Víctor Hidalgo bezalakoak.

Ikastola kostata sortu zen gerra ondoko giro traketsean. Estreina, 50 ikasle inguru elkartu ziren Sanperio kaleko Pelotazale Elkartearen, Rosarito Lasa eta Mari Karmen Oiarbide andereñoekin.

Eskola urteetan barrena

Eskola urteetan zehar nola aldatu den jakiteko onena, jendeak berak bizi izandakoa entzutea da. Horretarako hiru belaunalditako jendea ekar dezakegu gure ikastetxera bakoitzak bere garaiko eskola gogora ekar dezan: aitona-amonak, gurasoak, gure ikasleak. Etxean dituzten argazkiak ekartzeko ere eska diezaiekegu. Bizipenak elkar-trukatzea oso polita eta aberasgarria izan daiteke.

JARDUERA: Galdetu

Baina zergatik ez diegu horretaz aitona-amonei galdetzen, eta gurasoei. Haien erantzunekin beharbada argi geratuko da zer nolako aldea dagoen lehengo eta oraingo ikaskuntzaren artean: gelan zenbat lagun elkartzen ziren, neskak edo mu-tilak ziren, zein ordutegi zuten, zenbat etxeke lan, orduko eta gaur egungo ohitu-rak... Horrekin batera, seguru asko orduko argazkiren bat egongo da zuen etxeetan.

Zainak bere burua aurkeztuz poematxo bat idatzi du. Ikasleei ere antzeko zerbait egiteko eska diezaiekegu.

Liburuxkako 26. eta 27. orrialdeak



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

JARDUERA:

Imajinatu une batez zeure burua Marokon, Errumanian, Txinan... Idatziko al zenuke poematxo bat han sentituko zenukeena —usainak, koloreak, ohiturak...— azalduz?

Liburuxkako 28. orrialdea

Eskola garaiko oroitzapenak

Ikastetxean bi edo hiru urterekin hasi, eta berandu arte egoten gara. Bertan, egu-nerokoan, gauza asko eta asko gertatzen dira; gehienak ahaztu egiten dira, baina gutxi batzuk arrazoi batengatik edo besterengatik gure oroimenean geratzen dira. Pasadizo eta gertakari bitxi edo xeblebre horietako batzuk ekarri ditugu hona.

Ikasleek horiek irakurri eta entzungo dituzte eta beraiei gertatutakoren bat idazte-ko proposatuko diegu. Idatzi horiek webgunean egongo den ikasleen txokoan zintzilia daitezke.

JARDUERA:

Hona hemen Kattalinen familiakoen hainbat oroitzapen. Galdetu etxean edo inguruan, eta saiatu kontatzeko moduko oroitzapen edo pasadizo gehiago lortzen.

Liburuxkako 28. eta 29. orrialdeak



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

HERRIKO KOMUNIKABIDEAK

Segura Irratia, Goierritarra aldizkaria... Gaztelaniatik euskarara urrats handiak ematen lagundu duten komunikabideak dira. Bertakoak. Gutako askok gogoan izango ditugunak. Euskal Telebista ere etorri zen gero, Euskadi Irratia, itxi zuten Egunkaria, Berria, Hitza, Goierrri Telebista, Goibegi aldizkaria, bestelako egunkariak... Hemen ezin 'Zaharrak berri' esan, benetan bai baitago zer kontatua.

Kontalari eta kazetari bikainak ere izan ditugu: Marikarmen Odriozola, Mikel Urretabizkaia, Txema Auzmendi... Edota korrespontsalak!

Atal honetan ere ondo legoke etxeetan galdetzea. Ale zaharrak —edo grabazioak!— berreskuratzea.

JARDUERA:

Aizue! Zergatik ez dugu froga egiten eta, egun batez, kazetari lanari ekiten? Zaina eta Gotzoni Ordiziako txoko kuttunen bat bideoan grabatu diezaiekegu. Elkarrizketa bat egin diezaiokegu gustuko dugun pertsonaren bati. Edo gure eskola edo ikastolako albisteren bat idatzi...

Liburuxkako 30. eta 31. orrialdeak

AMAIERA

Elkar hartuta, elkarrekin, zahar eta gazte, maisu-maistrak eta ikasleak, abiapuntu dugun amaierara ailegatu gara. Lehen unitatetik Historian atzera egin genuen, baina bultzada hartzeko eta, bigarren eta, bereziki hirugarrenaren ondotik, orainari behar bezala begiratzeko eta heltzeko. Gogoan al duzue lehen aleko esaera zaharra?

Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola.

Bai, inondik ere nondik gatozen jakiteak, banaka eta taldeka zer garen ikusteak lagundu egiten du oraina aukera edo opari gisa hartzen, eta etorkizuna hobetzen eta edertzen. Esandakoa: elkar hartuta, elkarrekin!



Ordizia - 3. Unitatea: Herritarrak protagonista

BIBLIOGRAFIA

X GALDÓS MONFORT, Ana: *VILLAFRANCATIK ORDIZIARA, historiaz jositako bidea= DE VILLAFRANCA A ORDIZIA, un camino pleno de historia*; Eusko Ikaskuntzaren ardurapeko argiltapena. Ordiziako Udala, 2008.

X Santa Ana aldizkariak.

X Ordiziako Udaleko web orria: www.ordizia.org

X Ordiziako elkarten gida, Ordiziako udala, 2009.